

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2015eko URRIAREN 22an  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkate Gentza Alamillo Udaeta jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut..

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Josu Artetxe

IDAZKARITZA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ondo etorria eman die bertaratu guztiei, eta besterik gabe osoko bilkuraren eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak eztabaidatu eta bozkatu dira.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko irailaren 24an eginiko osoko bilkuraren akta.**

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

**2.- Luiaondoko Padura kaleko araztegiaren instalazioa lagatzea eta hitzarmena behin betiko likidatzea.**

Gentza jaunak (EAJ/PNV) esan du hitzarmen honen bidez berretsi egiten dela Padura kaleko bizilagunekin sinatutako hitzarmena.

Lauren jaunak (BILDU) esan du hasiera batean bere taldea abstenitu egingo dela; izan ere, jabekideek batzar bat egingo dute, gaia aztertzeko. Horrenbestez, itxaron genezakeen harik eta kontua eztabaidatzen duten arte. Gainera, beste zenbateko bat ordaindu behar dute, eta ordaintzeko aukera denboran luza daiteke.

Gentza jaunak azaldu du ordaindu beharreko zenbatekoa asko dela eta ez dagoela arazorik ordainketa atzeratzeko edo zatitzeko, hala eskatzen badute. Gehitu du hitzarmen honekin bizilagunek eta aurreko korporazioak sinatutako hitzarmena gauzatu besterik ez dela egiten.

Lauren jaunak esan du itxaron egin behar zutela bizilagunekin batzarra egin arte.

Esteban jaunak (BILDU) adierazi su akordioa ez dela hitzarmenaren parekoa.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) akordioaren bosgarren puntua eta hitzarmenaren bigarren puntua irakurri ditu. Azken hori bere sasoian sinatu zen, eta berdin idatzita dagoela ikus dadin irakurri du.

Iñigo jaunak (EAJ/PNV) esan du Bilduk interes handia agertzen duela gaiaren inguruan; baina, badago jabeekideen komunitatearen idazki bat, 2014ko azarokoa, erantzunik izan ez duena. Orain erantzun behar izan diogu; izan ere, berriz aurkeztu dute idazkia, ea sartzan zen gobernu-taldeak erantzuten zien.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du hau guztia hiritartze-obra batetik eta berme eskas batetik datorrela: ez zuen obraren % 10 ere estaltzen, eta, ezer gertatuz gero, ez zegoen inolako babesik. EAJk gobernatzen zuenean izan zen. Bildu gobernuan sartu zenean, gaia konpontzen saiatu ziren, eta horregatik onartu zen hitzarmena eta horregatik egin ziren lanak.

Iñigo jaunak (EAJ/PNV) esan du sasoi hartan Gonzalo Galende zela hirigintzako burua; beraz, beharbada erruak banatu beharko direla.

Esteban jaunak (BILDU) esan du jabeekideen idazki hori, aparkaleku gehiago eskatzeko egin zutena, ez zela baztertu. Esan du gizarte-zentroko jabeekin bildu zirela, eta, ondoren, Ivánek hitz egin zela, aparejadorearekin, eta hark irtenbidea eman zuela. Alabaina, inguruaren aparkaleku-beharrizanak aztertzean, batzuek esan zuten beharbada ez zela hain beharrezkoa izango. Halaber, ikusi zen ez zegoela lanei ekiteko aurrekonturik, eta horren guztiaren berri eman zitzaizen herritarrei.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) idazki hau irakurri du:

*“AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU ELEDER ZALBIDR CUADRA JAUNAK, ..... NAN zenbakia duenak, G.I. ONDARE, SLren izenean eta hango ordezkari jardunda (Luiaondoko Padura auzoko higiezinaren multzo pribatuko jabeekideen komunitateko administratzailea da, ..... IFZ duena), jendaurrera agertzen da eta ahalik eta modu onenean*

#### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:**

*I.- Orain dela hainbat hilabete udal-politikari arduradunekin (Udal honetako zinegotziak) eginiko batzarrean, Luiaondoko Padura auzoko hirigintza-multzo pribatua osatzen duten komunitateetako buruek proposamen soila helarazi zieten, Padura auzoko mugikortasun- eta aparkaleku-arazoak konpontzeko. Proposamen hark kostu ekonomiko txikia zuen udal-kutxetarako, eta udal-politikari arduradunek hitzeman zuten laster eta atzerapenik gabe gauzatuko zutela.*

*II.- Padura auzoko hirigintza-multzo pribatuko adierazitako komunitateko jabeekideen batzarrean egiaztatu zen Udalak ez zuela konpromisoa bete, eta erabaki zen, aho batez, Udal honi eskaera egitea, konpromiso hori bete dezan (zehazki, Padura auzoko bizilagunekin hartutako konpromisoa da), auzoko aparkaleku-arazoak konpontzeko, aparkalekuen kopurua handituta.*

*III.- Udal-arduradun politikariek onartutako proposamenak hau dio:*

*-Padura auzoaren barnealdea norabide bakarreko bide bihurtzea, sarbidea eginik RENFEren geltokiko sarreratik, eta irteera aurkako lekutik.*

*- Egungo biribilguneak kentzea, ez dutelako inolako baliagarritasunik.*

*- Aparkalekuak egitea bidearen alde bietan: alde batean baterian eta beste alde batean jarraian.*

*Baterian aparkatzeko lekuak ez dira bidearekiko perpendikularki pintatuko, ezpada angelua eginez, ibilgailuak joan-etorrian dabiltzan bidearen zabalerak bidea eman dezan larrialdietako ibilgailuak (suhiltzaileak, anbulantziak...) igarotzea, eta noizean behin mudantzetako kamioiak eta bestelakoak ere igarotzea.*

*- RENFEren geltokira sartzeko bidea norabide bikoitzekoa izan dadila, egurgileen kamioiak eta estaziora zein mendira joan-etorrian dabiltzan ibilgailuek Padura auzoa zeharkatu behar ez izateko, eta errepidetik zuzenean sartu ahal izateko.*

*- Restergo auzoko etxebizitzan jabeek (Padura auzoaren izkinan daude) sarrera eta irteera zuzena izan dezatela errepidera, auzo hori zeharkatu behar izan gabe. Horretarako, gaur egun zerbitzu ematen dien bidea norabide bikoitzeko bide bihurtuko da.*

*Hori guztia dela eta,*

*ESKATZEN DIZUT, idazki hau aurkeztutzat jotzeko eta onartzeko, eta jasotako adierazpenak egintzat jotzea, arduradun politikoei emandako konpromisoa eta hitza betetzeko; zehazki, Udal honetako gobernu-taldeko zinegotziek Luiaondoko Padura auzoko bizilagunekin hartutako konpromisoak dira.*

*Luiaondon, Arespalditzarako, 2014ko urriaren 22an.”*

Esteban jaunak (BILDU) adierazi du idazki hori udal-teknikari batekin aztertu zela, eta esan zigun ezinezkoa zela hori egitea kostu minimo batekin.

Iñigo jaunak (EAJ/PNV) esan du orain dela gutxi antzeko idazki bat igorri dutela Udalera, esateko ez zaiola gaiari heldu.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du ez zegoela inolako udal-akordiorik hori gauzatzeko.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 7 (5 EAJ/PNV eta 2 AB)

ABSTENTZIOAK: 4 BILDU

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA .-** Luiaondoko Padura bizileku-multzoar4n eta Aiara/Ayalako Udalaren arteko hitzarmena, lanak egiteari buruzkoa, Árbol Malato Egoitza Plan Partziala hiritartzean eginiko akatsak zuzentzeko. 2015eko apirilaren 8an sinatu zen.

**IKUSI DA.-** “Padura etxebizitza-multzo”-ko jabekideen komunitateko presidenteak 2014ko azaroaren 21ean aurkeztutako idazkia, eskatu egiten duena kontratuari dagokion ondare-erantzukizuneko espedientea abiarazteko eta 22.474,10 euroko kalte-ordaina emateko (zenbateko hori lortzeko, Udalak komunitateari erreklamatutako zenbatekoari –77.554,68 euro– kendu zaio onartutako ordainketa-betebeharraren muga –66.080,58 euro–). Bestalde, amaitutzat jotako obrak uren arloko agintaritza eskudunak ezarritako betekizunak ez betetzeak eta kontratatu zen xederako baliagarri ez izateak eragindako kalteetatik eratorritako zenbatekoa ordaintzeko eskatzen da.

**IKUSI DA.-** Padura etxebizitza-multzoko jabekideen komunitateko buruak aurkeztutako idazkia, 2015eko irailaren 21ekoa, honako hau eskatzen duena:

- Betetzat jotzea Luiaondoko Padura etxebizitza-multzoak onartutako betebeharrak, Árbol Malato Egoitza Plan Partziala hiritartzeko akatsak zuzentzeko lanen exekuzioari eta Udalarekin sinatutako lankidetzahitzarmena betetzeari dagokionez.

- Lankidetzahitzarmenean ezarritako betebeharrak, oraindik ere betetzeko daudenak, gauzatzea. Honako hauek dira:

1) Udalaren eta Padura auzoan higiezinaren multzo pribatu gisa legeari jarraikiz eratutako jabekideen komunitateko ordezkariaren aurrean formalizatutako administrazio-aktan dokumentatzea titulartasun pribatukotzat jotako instalazioen harrera.

2) Efikazia ematea Udalaren nahitaezko lizentzia edo baimena ez duten jarduera-esparruko etxebizitza-blokeen lehenengo okupazioari.

3) Familia bakarreko 4 etxebizitzetara dagokienez, exekutututako obren inguruko txosten zehatzak lortzea eta legeztatzea, betetzat jotzeko 1. okupazioko lizentzian ezarritako baldintza (obren aldeko txostena ematea, hala eraiki egin delako 4 etxebizitzetara zerbitzua emateko lizentzian aurreikusitako putzu septikoa nola Udalak adostu egin duelako gainerako blokeei zerbitzua emateko araztegiarekin eginiko lotura, hori konpontzeko lanak egin eta uren arloko agintaritza eskudunak baimena eman ondoren, eta lotura egiteko lanen egokitasun teknikoa justifikatu ondoren.

**IKUSI DA.-** Kantauriko Urkidetzaren ebazpena, 2013ko urriaren 7koa, aldatu egiten duena Aiara-Eraikuntzak BMSLren V-01-000490 isuria baimentzeko espedientearen titulartasuna Padura auzoko higiezinaren multzo pribatuko jabekideen

komunitatearen alde; zehazki, horri eskualdatzen zaizkio eskubide eta betebeharrak guztiak, eta isuriaren baimena aldatzeko baldintzak ezartzen dira.

**IKUSI DA.-** Kantauriko Urkidetzaren ebazpena, 2015eko uztailaren 25ekoa, onetsi egiten duena urbanizazioko arazte-instalazioen azken aitortpen-akta, eta aldatu egiten duena, 2015eko martxoaren 19tik aurrera, urbanizazioko hondakin-urak isurtzeko baimena, Urkidetzak 2013ko urriaren 7an emandako ebazpenean ezarritako baldintzei jarraikiz.

**IKUSI DA.-** Udaleko zerbitzu teknikoek 2015eko irailaren 30ean eginiko txostena, Árbol Malatoko Plan Partzialeko C lursailean eraikitako familia bakarreko 4 etxebizitzetarako dagokienez, adierazten duena etxebizitza horiek Padura auzoko higiezinaren multzo pribatuko jabekideen komunitateari atxiki zitzaizkiola eta proiektuak arazte-sistema propioa aurreikusten bazuen ere, etxebizitzak lotu egin zirela, aldez aurreko baimenik gabe, gainerako hirigintza-esparruko arazte-sistemara, hormigoizko hodi baten bidez.

Uren arloko agintaritzak eskudunak oniritzia eman ondoren arazte-sistema berriari (Plan Partzialeko gainerako 160 etxebizitzetarako eta familia bakarreko 4 etxebizitzetarako ahalmena du), aintzat hartuta eginiko loturak ez dituela aldatzen hirigintza-parametroak eta ez dituela urratzen arau subsidiarioak, isurtzeko baimena igorri ondoren, amaitutzat jotzen dira etxebizitza horretan arazte-sistemarik ez egoteak eragindako eskakizunak.

**OINARRIAN DAGO.-** Udalak bete egin ditu hitzarmenean onartutako konpromisoak; izan ere, putzu septikoa exekuzio subsidiarioaren bidez eraikitzeko lanak esleitu ditu, uren arloko agintaritzak eskudunaren argibideei jarraituta. Agintaritzak horrek, instalazioak berrikusi ondoren, behin betiko oniritzia eman du.

Beraz, ez dago inolako erantzukizunik eta bidezkoa da eskatutako ondare-erantzukizuneko eskaera ezatea.

**OINARRIAN DAGO.-** Jabekideen komunitateak zati batean bete ditu bere betebeharrak; izan ere, hitzarmenean ordainduko zituela adierazitako zenbatekoak eman ditu, lehenengo bi epeetan. Halaber, uren arloko agintaritzak eskudunaren baimena jakinarazi ondoren, bi zenbateko ordaindu ditu: 6.080,58 euro eta 4.794,97 euro (azken hori putzu septikoak husteari dagokio).

**OINARRIAN DAGO.-** 2014ko martxoaren 14ko 123/14 Dekretuan adierazienez (irmoa eta onartua da), hitzarmena sinatzean obrak behin-behinean 66.080,58 euroan likidatu baziren ere, dagokion proiektuan jasotako

aurrekontuarekin bat etorriz, ez zen zenbateko itxi gisa jaso, ezpada behin betiko likidazioaren mendeko gisa. Azken likidazio hori obrak exekutatu ondoren egin behar zen, agintaritza eskudunak behin betiko oniritzia eman ondoren.

Obrak exekutatu ondoren, Padura hirigintza-multzoak eman beharreko behin betiko likidazioa (bermeei zegozkien zenbatekoak kendu ondoren) 77.554,68 eurokoa da; izan ere, obra-zuzendariaren 2014ko uztailaren 9ko txostenaren bidez egiaztatu zenez, proiektatutako obrak exekutatu dira, eta sektoreko agintariak eskatutako aldaerak besterik ez dira egin, obrak nahitaez azaldutako beharrezanekin batera (ez proiektuaren gabezien ondorioz, eta inolako aldaketa berezirik egin gabe).

**OINARRIAN DAGO.-** Behin betiko likidazioa zenbatu ondoren ageri da ordaindu beharreko zenbateko osoa; izan ere, obrek proiektua errespetatzen dute, obra-beharrezanetara eta uren arloko agintaritza eskudunaren eskakizunetara egokitzen dira, eta, horrenbestez, 6.679,13 euro ordaindu behar dira.

Egia den arren hitzarmenak esaten duela 66.080,58 euroko zenbatekoa dela gehieneko zenbatekoa hitzarmenari dagozkion ondoretarako, hitzarmenean bertan adierazten da sustatzaileak bete beharrekoak betetzen ez baditu, higiezin jabeek (jabekideen komunitateko kideek) bere egin behar dituztela, legeak hala aginduta, egiteko dauden hiritartze-betebeharrak. Halaber, Udalaren exekuzio subsidiarioak eragindako gastuak ordaindu beharko dituzte (Azaltzen dute VI). Udalak exekuzio subsidiarioan kontratatuko ditu lanak; horretarako, exekutututako bermeen kontsumitu gabeko zatia erabiliko du, eta gainerako zatia jabekideen komunitateak ordainduko du (bigarren klausula). Berebat, jabekideen komunitateak hitzematzen du egiteko dauden obrak finantzatzeko dituela, eta ordaindu egingo duela kontratazio-espeditarean eta bermeetan xedatu gabeko zenbatekoaren artean sortzen den kopurua. Hain zuzen ere, argi islatzen da kopuru hori, “behin-behinean, 66.080,58 euro”-koa dela. Hau da, obrak exekutatu ondoren behin betiko likidaziotik sortutakoan eragin gabe, uren arloko agintaritza eskudunaren oniritziarekin.

**OINARRIAN DAGO.-** Bidezkoa da araztegi berriaren eta hodian harrera formalizatzea. Pribatutzat joko dira, eta jabekideen komunitateak formalki onartuko du horiek kontserbatzeko eta mantentzeko betebeharra. Akta sinatu ondoren, Udalak gauzatu egingo du Árbol Malatoko plan partzialaren esparruan lizentzia hori ez duten etxebizitzaren blokeen lehenengo okupazioko lizentziari.

Eta udal-zerbitzu teknikoaren 2011ko otsailaren 3ko txostenean familia bakarreko 4 etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko adierazitako oztupoa zuzendu ondoren, lizentzia hori emango da, behin aipatutako akta sinatuta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoa.

Eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 93. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

Korporazio honen gehiengo absolutuak, 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran, hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Egoki eratutzat jotzea araztegiko obra, Udal honek subsidiarioki egin duena, uren arloko agintaritza eskudunak arazte-instalazioen aldeko azken aitortpena egin ondoren. Bestalde, Udalaren jabari eta erabilera publikoko lurzoruan dagoen instalazio pribatu horren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia baimentzea Padura auzoko higiezin multzo pribatuko jabekideen komunitateari, prekarioan, harik eta arroa saneatzeko hodi-biltzaile nagusi baten lanak egiten diren arte. Hala denean, Luiaondoko etxebizitza guztiak konektatu beharko dira horra.

Enpresa kontratatzaileari itzultzea exekuzioa bermatzen zuen bermea, 5.537,19 eurokoa eta 2013ko uztailearen 3koa.

Eta aurreko instalazioa, erabilezin utziko dena, zigilatzea, lursailetan segurtasuna, osasungarritasuna eta apaindura publikoa mantentzeko.

**Bigarrena.-** Ez onartzea Padura auzoko higiezin multzo pribatuko jabekideen komunitateak 2014ko azaroaren 21ean eskatutako kontratutik eratorritako ondare-erantzukizuna.

**Hirugarrena.-** Zati batean betetzat jotzea Padura auzoko higiezin multzo pribatuko jabekideen komunitateak lankidetzat-hitzarmenean hitzemandako betebeharrak. Horretarako, lehenengo bi epeetan ezarritako zenbatekoak ordainduko dira, bai eta uren arloko agintaritza eskudunak arazte-instalazioen aldeko azken aitortpenaren ondoren sartutako azken bi zenbatekoak ere.

**Laugarrena.-** Behin betiko likidatzea Padura auzoko higiezin multzo pribatuko jabekideen komunitateak ordaindu beharreko zenbatekoa; zehazki, arazte-instalazioen aldeko azken aitortpenaren ondoren egin beharreko azken ordainketari dagokio, eta guztira 6.679,13 euro dira.

Interesdunei jakinaraztea borondatez ordaintzeko epea hilabetekoa dela hau jakinarazi ondoren, eta Udalak KUTXABANK erakundearen duen honako kontu-zenbaki honetan sar daitekeela: ES23 2095 3258 27 1095224464.

Borondatez ordaintzeko epean ordaindu ezean, premiamenduaren bidez bilduko da dirua, ordaindu beharrekoen ondareari helduta eta premiamenduari dagokion gainkarga gehituta.

**Bosgarrena.-** Udalak subsidiarioki exekutututako araztegiaren instalazioaren emakida formalizatzea Padura auzoko higiezinaren multzo pribatuko jabekideen komunitatearekin. Horretarako, administrazio-akta bat sinatuko da, non lankidetzaren hitzarmenaren exekuzioaren kariatara, aitortu egingo baita jabekideen komunitatea saneamendu- eta arazte-instalazioaren titularra dela. Horiek jabetza pribatutzat joko dira eta komunitatean zaintzen eta mantentzen jarraituko dutela hitzemango da; ildo horretatik, udal-lursailetan eragin daitezkeen kalteez arduratuko dira, mantentze-lanen bidez, bat etorritik Aiarako Udalak eta Árbol Malato etxebizitza-multzoko jabekideen komunitatearen artean 2013ko apirilaren 8an sinatutako hitzarmenaren jasotakoarekin.

Jabekideen komunitateko ordezkariari deituko zaio akta formalizatzeko, eta udalburu jaunari ahalmena emango zaio, Udalaren ordezkari gisa sina dezan.

**Seigarrena.-** Administrazio-akta sinatu ondoren, alkatetzaren ebazpena emango da, eta horren bidez gauzatuko dira Árbol Malatoko Plan Partzialeko etxebizitza-blokeen lehenengo okupazioko lizentziei; orobat, familia bakarreko 4 etxebizitzak lehenengoz okupatzeko lizentzia emango da, lizentzia hori ematea eragozten zuten saneamendu-akatsak konpondu direlako.

**Zazpigarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea Padura auzoko higiezinaren multzo pribatuko legezko ordezkariari, eta azaltzea lehenengo, bigarren, hirugarren, bosgarren eta seigarren puntuaren aurka hautazko berrezartze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela, hilabeteko epean, korporazio honen aurrean; bestela, zuzenean jar dezakete administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian.

Laugarren puntuaren aurka nahitaezko berrezartze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, korporazio honen aurrean.

### **3.- Doan lagatzea 10 ordenagailu eta 3 inprimagailu CEIP ETXAURREN IKASTOLA HLHiri.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta



**IKUSI DA.-** Etxaurren ikastolak aurkeztutako idazkia, Aiarako Udalak honako informatika-ekipo hauen titulartasuna laga diezaion, bere informatika-sarean txertatzeko (horretarako, ikastolarenak izan behar dute):

- 9 ordenagailu: AMD Sempron (TM) 2.600 (1,82 gmz + 512 Mb RAM)
- 1 ordenagailu COMPAQ EVO.
- 2 inprimagailu LEXMARK Z 612.
- 1 inprimagailu HP Deskjet 374T.
- 1 inprimagailu HP Laserjet 1010.

**AINTZAT HARTU DA.-** Ordenagailu horiek Udalarenak izan arren, Etxaurren ikastolari besterik ez diote zerbitzu ematen, eta Udalak horiek mantentzeko zerbitzua eman izan du.

Korporazio honek, aho batez, hau **EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** Doan lagatzea CEIP ETXAURREN IKASTOLA HLHiri (Kodea: 010165) honako ondasun higigarrien titulartasuna:

- 9 ordenagailu: AMD Sempron (TM) 2.600 (1,82 gmz + 512 Mb RAM)
- 1 ordenagailu COMPAQ EVO.
- 2 inprimagailu LEXMARK Z 612.
- 1 inprimagailu HP Deskjet 374T.
- 1 inprimagailu HP Laserjet 1010.

**Bigarrena.-** CEIP ETXAURREN IKASTOLA HLHiri jakinaraztea, lagapena egiten denetik aurrera, Aiarako Udalak ez duela emango informatika-ekipo horiek mantentzeko zerbitzurik emango.

**Hirugarrena.-** Lagapenaren hartzaileak bere eskumenekin lotutako jardueratako bakarrik erabili ahal izango ditu lagatutako ondasunak.

**Laugarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea CEIP ETXAURREN IKASTOLA HLHiri, ezagut dezan.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak bere egitea honako honetatik eratorritako gastu juridikoak (abokatua eta prokuradorea): isun baten aurka Gaztela eta Leongo Batzarrak ezetsitako berrezartze-errekurtsoaren aurka “Coto de caza de Ayala” elkarteak ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.**

Gentza jaunak (EAJ/PNV) esan du proposatu dela Udalak bera egitea Caza y Pesca de Ayala elkartearen gastu juridikoak, Aiarako ehiza-barrutia mugatzen duten oholtxoak aldatzeagatik ezarri zieten isunaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko. Izan ere, barruti hori Udalarena da.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldea ados dagoela proposamenarekin; izan ere, arazoa Udalak esleitzen duen ehiza-barrutiaren barneko lursailean sortzen delako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Ezetsi da Sociedad de Caza y Pesca del Valle de Ayala elkarteak Gaztela eta Leongo Batzarraren lurralde-ordezkararen 2010eko maiatzaren 13ko ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpen horren bidez zehatzen da aipatutako elkartea, “lursail baten izate zinegetikoa islatzen duten kartel edo seinaleak aldatzeagatik”. Hori 2009ko azaroaren 19an gertatu zen, eta Gaztela-Leongo Batzarraren arabera, Valle de Losa udalerriko (Burgos) “Mandagua eta La Tejera mendiko BU 10.232 ehiza barrutia” izeneko parajea gertatu zen.

**IKUSI DA.-** Zehapena honako hauen ondorio da: Aiarako VI-10-120 ehiza-barrutia mugatzen duten oholtxoak aldatzea (oholtxo zaharrak zeuden leku berean egin zen aldaketa). Sociedad de Caza y Pesca de Ayala elkarteak egin zuen lana, Aiarako aipatutako VI-10.120 ehiza-barruti aipatuko esleipenduna zelako orduan.

**AINTZAT HARTU DA.-** Zehapena funtsatzen duen arrazoa da Losa eta Aiara haranen artean dagoen gatazka, mugarrien kokapena dela eta; hots, bi udalerrien arteko muga dela eta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalaren ustez, oholtxoak berri diren eremua Aiarako VI-10.120 ehiza-barrutian dago, eta hala esleitu zion Sociedad de Caza y Pesca de Ayala elkarteari; beraz, elkarte horrek, lursaila barrutian zegoelakoan, barrutia mugatzen duten oholtxoak ordezkatu zituen. Horrenbestez, Aiarako VU-10.120 zenbakiko barrutiaren esleipenaren espedientearekin bat etorritik, egin ahal zuela uste zuen egintza gauzatzeagatik zehatu da elkarte hori.

Korporazioak, aho batez, hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalak bere egingo ditu honako honetatik eratorritako gastu juridikoak (abokatua eta prokuradorea): isun baten aurka Gaztela eta Leongo Batzarrak ezetsitako berrezartze-errekurtsoaren aurka “Coto de caza de Ayala” elkarteak ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea Sociedad de Caza y Pesca de Ayala elkarteari, jakinaren gainean egon dadin.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea Udalaren Aholkularitza Juridikoari, errekurtsio hori aurkezteko behar diren agiriak aurkez ditzan.

**5.- Onestea, bidezkoa bada, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren hamargarren ziurtagiria, 2015eko irailekoa. Guztira 75.718,11 euro dira (BEZa barne).**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**AINTZAT HARTU DA.-** Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

**IKUSI DA.-** Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako hamargarren ziurtagiria eta faktura, 75.718,11 eurokoa (BEZa barne).

**AINTZAT HARTU DA.-** Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

Korporazioak, aho batez, hau **EBATZI DU:**

**LEHENENGOA.-** Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako hamargarren ziurtagiria. Guztira 75.718,11 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

**BIGARRENA.-** Diruzaintzari agintzea 75.718,11 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

**6.- Honako Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **Erref.- 406/15.- FAO.-** Zehapen-espedita, Etxegoieneko bide publikoan lurak botatzeagatik.
- **Erref.- 407/15.- M.E.M.O.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko Udal Zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 408/15.- Construcciones MK. S Coop.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.

- **Erref.- 409/15.- MVE.-** Dokumentazioa eskatzea, Murgan abeltzaintza-ustiategiaren jarduera eta obra legeztatzeke eta handitzeko espedientea izapidetzeko.
- **Erref.- 410/15.- AVD.-** Zuhatzan behien jarduera legeztatzeke espedientea.
- **Erref.- 411/15.- MA.C.A.-** Dokumentazioa aurkezteko eskatzea, Retes de Llantenon etxebizitza eraikitzeke obrarako lizentzia emateko.
- **Erref.- 412/15.- F.R.R.-** Hondakinen kudeaketari dagokion fidantza eskatzea, Menagarain etxebizitza eraikiko dela eta.
- **Erref.- 413/15.- EH.S.F.-** Biztanleen udal-eroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 414/15.- JL.O.E.-** Lizentzia ematea, Arespalditzan landa-giroko finkak bereizteke.
- **Erref.- 415/15.- MT.M.I.-** Dokumentazioa eskatzea, Murgan finkak bereizteke lizentzia lortzeke.
- **Erref.- 416/15.- Tubos Reunidos Industrial, SLU.-** Obrarako lizentzia ematea, Markixaan punpatze-hodia aldatzeke.
- **Erref.- 417/15.- MG.C.-** Dokumentazioa eskatzea, Llantenon baserri baten teilatua konpontzeke obrarako lizentzia emateko.
- **Erref.- 418/15.- JP.U.I.-** Obrarako lizentzia ematea, Llantenoko etxebizitza baten fatxada pintatzeko.
- **Erref.- 419/15.- G.B.L.-** Obrarako lizentzia ematea, Luiaondoko lursail batetik zuhaitzak kentzeke.
- **Erref.- 420/15.- MC.B.A.-** Obrarako lizentzia ematea, Murgan lursail baterako behin-behineko sarbidea exekutatzeko.
- **Erref.- 421/15.- A.M.C.-** Luzapena ematea, lurak udal-lizentziarik gabe mugitzeagatik hirigintza-antolamendua lehengoratzeko espedientea izapidetzeko dokumentazioa aurkezteke.
- **Erref.- 422/15.- Sojoko Administrazio Batza.-** Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea, Sojon bolatokia egokitzeko.
- **Erref.- 423/15.- Iradia Saénz de Lafuente Blanco.-** Iradia Saénz de Lafuente Blanco izendatzea HAPN egiteko lan-taldeko koordinatzaile.
- **Erref.- 424/15.- KIROLGEST, S.L.-** Aldatzea arteri eta kulturari buruzko ikastaroa eta tailerrak emateko kontratuak.
- **Erref.- 425/15.- AUTOCARES DE ZALLA, SL.-** Eskola-garraiorako baimena.
- **Erref.- 426/15.- MENOIOKO "LA ESCUELA" KULTUR ELKARTEA.-** Espedientea hastea, elkartearen diru-laguntzen zati bat itzultzeke (2013ko eta 2014ko deialdiak).
- **Erref.- 427/15.- LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZA.-** Fidantza eskatzea, hondakinak kudeatzeko, Luiaondoko frontoian metalezko egitura sendotzeke lanetan.
- **Erref.- 428/15.- LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZA.-** Fidantza eskatzea, hondakinak kudeatzeko, Luiaondoko frontoiaren albo eta aurrealdea ixteke lanetan.
- **Erref.: 429/15.-** Alkatearen 3-2015 kreditu gehigarriaren espedientea.

- **Erref.- 430/15.- Obra txikiko kontratua esleitzea M.A.M.Ori.** Esleitzea Aiarako 3. poligonoko 1333. zenbakiko partzelan kokatutako oilotokiaren eraikuntza eraisteko proiektua.
- **Erref.- 431/15.- LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZA.-** Lizentzia ematea, Luiaondoko frontoian metalezko egitura sendotzeko.
- **Erref.- 432/15.- LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZA.-** Lizentzia ematea, Luiaondoko frontoiaren albo eta aurrealdea ixteko.
- **Erref.- 433/15.- J.C.A.-** Obrarako lizentzia ematea, Agiñagako eraikin bateko teilak ordeztzeko.
- **Erref.- 434/15.- Esclavas del Amor Misericordioso ikastetxea.-** Obrarako lizentzia ematea, Menagarain aparkalekua eraikitzeko.
- **Erref.- 435/15.- Esclavas del Amor Misericordioso ikastetxea.-** Obrarako lizentzia ematea, Menagarain kirol-pista konpontzeko.
- **Erref.- 436/15.- NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN, SAU.-** Hegalaren, lurzorua eta/edo lur azpiaren aprobetxamendu pribatiboagatik tasa. 3. hiruhilekoko likidazioa.
- **Erref.- 437/15.-** Lapurtutako eta aseguru-konpainiak kalte-ordainetan ordaindutako furgoneta erostea.
- **Erref.- 438/15.- M.I.B.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zerbaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 439/15.- F.G.F.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zerbaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 440/15.- A.I.I.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zerbaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 441/15.- L.A.A.-** Biztanleen udal-eroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 442/15.- MJ.OM.-** Biztanleen udal-eroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 443/15.-** Luiaondoko Magdalena kalea, 14 helbideko eraikinaren hondamendiari buruzko administrazio-espedientea ebaztea, eta jabeei jakinaraztea.
- **Erref.- 444/15.- J.M.S.I.-** Neurri zuzentzaileak betetzeko eskatzea, Llantenon abeltzaintza-jarduera irekitzeko lizentzia emateko.
- **Erref.- 445/15.- B.L.S.-** Lehenengo okupazioko behin-behineko lizentzia ematea, Izoriako familia bakarreko etxebizitzarako.
- **Erref.- 446/15.- Onestea F/2015/9 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 447/15.- Abere Zerbitzu Teknikoak Koop. S.-** Obrarako lizentzia ematea, Murgako Industria Poligono bateko pabiloia egokitzeko, abeltzaintza-kooperatibako jarduerarako.
- **Erref.- 448/15.- Abere Zerbitzu Teknikoak Koop. S.-** Abeltzaintza-kooperatibako jarduera egiteko jarduera abiarazi aurreko jakinarazpena.
- **Erref.- 449/15.- S.L.R.-** Obrarako lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza baten estalkian erreteila egiteko.

- **Erref.- 450/15.-** Landa-giroko OHZren errolda onestea (2015 ekitaldia).
- **Erref.- 450/15.-** Hiriko OHZren errolda onestea (2015 ekitaldia).
- **Erref.- 452/15.- I.A.G.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako lizentzia emateko.
- **Erref.- 453/15.- NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA, S.A.U.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 3. hiruhilekoa).-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 3. hiruhilekoa). Gasa.
- **Erref.- 453/15.- NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA, S.A.U.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 3. hiruhilekoa).-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 3. hiruhilekoa). Elektrizitatea.
- **Erref.- 311/13.- IZORIAKO ADMINISTRAZIO BATZA.-** 2014ko argiteria publikoko gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 456/15.- L eta B.T.M.-** Fidantza eskatzea, Salmantónen estalkia eraberritzeko lanetako hondakinen kudeaketa bermatzeko.
- **Erref.- 457/15.- Depumaster Sistemas de Depuración.-** Kontratua esleitzea, adituen txostena idazteko, Luiaondoko UE-1 araztegiari buruz.

\*Nerea andreak (BILDU) 425/15 zenbakiko Dekretuari buruz galdetu du. Autocares Zalla-ri eskolako garraioa egiteko baimenari dagokio.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du haurrak ikastolara eramateko ibilbideak direla-eta izan beharreko baimenari dagokiola.

\* Nerea andreak (BILDU) esan du dekretuen zerrendan HAPNren koordinatzailearen izendapena agertzen dela, eta harrিতa daudela, ez delako zegokion informazio-batzordetik igaro, batez ere zinegotzi horrekin eta udal-arkitektoarekin konpondu gabeko kontua dagoelako. Gutxienez hiru pertsona zeuden tartean, eta bati ez zaio deitu gaia konpontzeko. Ez zaie bidezko iruditzen.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du aurreko osoko bilkuran azaldu zutela jada nola bideratu zuten kontua. Berak ulertzen du bi pertsona daudela tartean: Iraida Sáenz de Lafuente andrea (ABko zinegotzia) eta Álvaro Ibarrola jauna (udal-arkitektoa). Gobernu-taldeak bilerak egin zituen banaka, eta, ondoren, beste bat biek in batera. Han azaldu zitzairen zein zen gobernu-taldearen iritzia eta nola egingo zuen lan orduz geroztik. Eskatu zitzairen beren lanetan eta beren erantzukizunak baliatzean elkarrekiko errespetuz jokatu behar zutela. Biek ulertu zuten bestela lan egiten has zitezkeela, eta hala egiten saiatzen ari dira. Gehitu du bere ustez ezer gutxi gehiago egin dezakeela Udalak.

Nerea andreak esan du beren ustez hirugarren pertsona bat ere dagoela tartean: aurreko alkatea; izan ere, idazkietan aipatzen zuten. Aipatu den guztia oso ondo dago, baina ez da ulertzen zergatik ez den hiruko batzar bat egin, aurreko alkatea ere bertaratuta, horrela gaia amaitutzat eman ahal izateko.

Gentza jaunak erantzun du beren ustez gaia itxita dagoela; izan ere, idazki horietan beste pertsona batzuk ere aipatzen dira, eta ez zaie deitu, kontua are gehiago ez nahasteko.

Nerea andreak galdetu du zergatik ez den eztabaidatu HAPNren koordinatzailearen izendapena eztabaidatu inolako batzordetan.

Gentza andreak erantzun du izendapen hori alkateari dagokiola eta lehen ez zegoela... izendapenik ere ez zela egin.

Lauren jaunak (BILDU) esan du aurrekoan batzorde batean adostu zela.

\* Esteban jaunak (BILDU) 457/15 Dekretuari buruz galdetu du; zehazki, ea zein sistemari buruz ari den.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du Luiaondoko EU1a dela, Otazun. Isuri4i buruzko analitikak agindu dira, eta adierazten dute ez dela zuzena. Hori dela eta, txosten bat eskatu da, araztegiaren egoera zein den ikusteko eta irtenbide bat aurkitzeko.

Esteban jaunak (BILDU) esan du gasaren kontua ere aztertzeko dagoela.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du kontua konpontzeko saiakera informalak egin direla, baina, ezinezkoa izan denez, Repsoli formalki eskatuko zaio depositu hori kentzeko; izan ere, ez du zentzurik depositua hor egoteak.

## **7.- Norberak lekarkeena.**

- Lauren jaunak (BILDU) esan du 2015eko aurrekontuan partida txiki bat zegoela langileen prestakuntzarako, langileei prestakuntza jarraitua emateko. Berekin hitz egin zen, eta zenbait kontu adostu ziren. Kontua zertan den galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du koordinazio-batzorde bat egin dutela langileekin, eta Exceli buruzko ikastaroak behar dituztela esan digute. Asmoa da horrekin jarraitzea, baita ofimatikatik harago ere. Atzematen den edozein beharrizan aztertuko da; tartean, euskararen arloko birziklatzea.

- Lauren jaunak esan du San Isidroko azokan martxan jarritako beste ekimen bat pirenaiakoaren lehiaketa izan zela. Gai hori aipatu du, epeen kontua dela eta; izan ere, berriz egingo bada, jada hasi beharko dute mugitzen.

Gentza jaunak erantzun du azokaren balorazioa begiratuko dutela. Buelta bat eman eta zer egin pentsatuko dute. Aiarako abeltzaintzaren sektorearen eskakizunak zein diren begiratuko da.

- Nerea andreak (BILDU) esan du, aurreko saioaren akta irakurrita, Aiara Batuz udal-taldearen hitz-txanda batean esan zuten bilera egin zutela gobernu-taldearekin, ekainaren 23an, antolakuntza-bileraz hitz egiteko. Bada, horrekin harrituta daude; izan ere, gobernu-taldea hirugarren indar politikoarekin bildu zen, ez bigarrenarekin. Halaber, harrituta daude, gobernu-taldeak ez ziolako azalpenik eskatu irtetear zegoen gobernuari, eramangarriaren gaiaren inguruan. Emango zituzketen.

Irtzen zen gobernuaren prest agertu zen sartzekoa zen gobernuarekin hitz egiteko, boterea eskualdatzeko. Gehitu du, halaber, harrigarria dela hiru hilabeteren buruan osoko bilkurara etortzea zabaltzak zabaldu besterik egiten ez duen eszenifikazio batekin.

Gentza jaunak erantzun du berak azalpenak eskatu zizkiola idazkariari, eta hark eman egin zizkiola. Aiara Batuzek egitea erabakitzen duena bere ardura da. Hitz egiten jarraituta, esan du berak zenbait bilera egin zituela Josurekin, zenbait gai aztertzeko, karguaz jabetu ondoren. Eskerrak eman ditu horregatik.

Nerea andreak (BILDU) gehitu du aurreko bilkuran gertatutakoa zalantzarik ez zegoen lekuan zalantzak sortzeko eszenifikazioa izan zela, irteten zen alkatearen aurkakoak, nahiz eta alkatea prest agertu zen eman beharreko azalpen guztiak emateko, botere-aldaketa egokia izan zedin. Horrenbestez, gai hori ere konpon zitekeen.

➤ Iraida andreak (AB) zerrako kudeaketa-plana zertan den galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du aste honetan David Pinedorekin geratuko dela (Aialur-ekoa da). Hark idatzi du plan hori, eta esaten diona lehenengo sektoreko batzorde batean komentatuko da.

Iraida andreak (AB) esan du prentsan irakurri duela nor den Kantauriko Urkidetza ur-partzuergoko presidente berria. Udal hau Partzuergoaren Asanblada Nagusira joan da jarrera batekin, boto batekin, eta, aurreko legegintzaldian bezala, ez da talde guztien artean adostu. Gogorarazi du Udalak Partzuergoan duen ordezkaria Udal osoaren ordezkari dela. Hori dela eta, eskatu du etorkizunean gainerako taldeekin adosteko Udalaren ordezkariak Partzuergora daramatzan aukerak.

Gentza jaunak (EAJ/PNV) erantzun du pertsona hori hautatu zela, uste genuelako administrazio-batzen ordezkari izanik, egokiena hori zela.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiara, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita biam.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.